PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	KOMUNITATE-DINAMIZAZIOKO METODOLOGIA	Iraupena	90
Kodea	MF1022_3		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Kultura- eta jolas-jarduerak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Komunitate-dinamizazioa	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Komunitate-prozesuko eragileak	Iraupena	90
	Herritarren parte-hartzea		90
	Elkarteen sustapena eta babesa		50
	Komunitate-dinamizazioan informazioa emateko eta hedatzeko teknikak eta tresnak		60
	Komunitateko eragileen arteko gatazken kudeaketa		60
	Gizon-emakumeen arteko aukera-berdintasunaren sustapena (Zeharkakoa)		50
	Komunitate-dinamizazioko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1022_3. KOMUNITATE BAT EDO LURRALDE-EREMU BAT OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO KOMUNITATEKO ESKU-HARTZEEN ETA PROIEKTUEN ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN PLANGINTZA, GARAPENA ETA EBALUAZIOA DINAMIZATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Komunitatearen errealitatearen azterketa partizipatiboa dinamizatzea.

EI1.1 Errealitatearen azterketa egiteko dauden teoriak eta ereduak konparatzea.

EI1.2 Informazio-iturriak lantaldeetan zehaztutako protokoloei jarraikiz identifikatzea eta aukeratzea.

EI1.3 Komunitateari buruzko informazioa aztertzea, lantaldean aurretiaz zehaztutako metodologietatik abiatuz.

EI1.4 Komunitate-dinamizazioko programei eta proiektuei buruzko informazioa aztertzea, eta hura osatzen duten elementuak ondorioztatzea.

EI1.5 Lantaldean zehaztutako protokoloei eta prozedurei jarraikiz lortutako informazioa erregistratzea.

EI1.6 Eragile guztien iradokizunak jaso eta erregistratzea, taldearekin eta komunitateko eragileekin batera aurretiaz diseinatutako metodologietatik abiatuz.

EI1.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, txostenak egitea, eta informazioa komunitateari ematea.

A2: Esku-hartze sozialen plangintzaren berezko elementuak ezagutzea eta erabiltzea, eta komunitatea dinamizatzeko proiektuen osaeran eta garapenean txertatzea.

EI2.1 Plangintza-ereduak bermatzen dituzten teoriak identifikatzea.

EI2.2 Komunitate-proiektuak lehenesteko parametroak aurretiaz zehaztutako irizpideen arabera zehaztea, lortu nahi ditugun helburuetatik abiatuz (sentsibilizatzea, dinamizatzea, aztertzea).

EI2.3 Lortu behar diren helburuak doitzeko eta graduatzeko teknikak aukeratzea.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, komunitate-proiektu bat egitea, ezarritako protokoloei eta metodologiei jarraikiz, eta alderdi hauetako bakoitza definituz:

- Parte-hartzaileak eta haien ezaugarriak identifikatzea.
- Hartzaileak.
- Justifikazioa.
- Helburuak.
- Metodologiak.
- Jarduerak.
- Denbora.
- Baliabideak.
- Ebaluazioa.

EI2.5 Eragileak komunitate-proiektuetan inplikatzeko beharrezkoak diren parametroak identifikatzea.

EI2.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, proiektu bat egitea, komunitateko eragileen esku-hartzearekin.

EI2.7 Proiektuaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren protokoloak eta erregistroak zehaztea.

A3: Komunitatean esku hartzeko proiektua dinamizatzea.

EI3.1 Komunitate-proiektuak gauzatzeko dinamizazio-ekintzak zehaztea eta identifikatzea.

EI3.2 Aldeen konpromiso handiena bermatuko duten topaguneen funtzionamenduari buruzko irizpide eta estrategia metodologikoak identifikatzea.

EI3.3 Eskubideen ezagutzaren eta zereginen ezagutzaren arteko lotura aztertzea, komunitate-proiektuak sortzeko ildo moduan.

EI3.4 Komunitate-proiektu baten programazioaren simulazio batean:

- Komunitateko esku-hartzearen tresna propioen ezaugarriak zehaztea.
- Helburuak zehaztea, interesdun guztien parte-hartzeari bide emango dioten mekanismoak adieraziz.
- Alde guztien konpromisoa nahiz aurreikusitakoarekiko adostasuna egiaztatuko dituzten jarduerei buruzko kontrol-prozedurak zehaztea.
- Erabakiak batera hartzeko prozedurak sortzea.
- Zereginak banatzeko bidezko prozedurak zehaztea.

EI3.5 Komunitatean esku hartzeko proiektuan inplikatutako eragileen interesak detektatzeko parametroak identifikatzea.

EI3.6 Lantaldearekin (komunitateko teknikariak eta komunitateko eragileak) zehaztutako protokoloen araberako funtzionamendu-arauak eta harreman-esparrua zehaztea.

A4: Komunitateko esku-hartzeen ebaluazioaren elementu eta tresna propioak ezagutzea eta erabiltzea.

EI4.1 Ebaluazio-ereduen oinarri diren teoriak aztertzea.

EI4.2 Ebaluazio-tresnak prestatzea.

EI4.3 Ebaluazio-irizpideak zehazteko teknikak aukeratzea.

EI4.4 Proiektua ebaluatzeko adierazleak prestatzea, aurretiaz definitutako protokoloei jarraikiz.

EI4.5 Proiektua ebaluatzeko beharrezkoak diren protokoloak eta erregistroak egitea.

EI4.6 Ebaluazio-elementuen arteko erlazioa ulertzea.

EI4.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, ebaluazioaren txosten bat egitea, eta, simulazio baten bidez, ebaluazioaren emaitza azaltzea, aurretiaz zehaztutako protokoloei eta hobeto ulertzeko beharrezkoak diren tresnei jarraikiz.

EI4.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batetik abiatuz, txosten bat egitea ebaluazioan lortutako emaitzekin.

A5: Komunitateko esku-hartzeen ebaluazio-prozesuetako parte-hartzea dinamizatzea.

EI5.1 Komunitatearekin batera, ebaluazio-tresnak aukeratzea, lantaldeak aurretiaz zehaztutako parametroei jarraikiz.

EI5.2 Plangintza egiteko prozesuetan lurraldeko eragile guztiak inplikatzeak duen garrantzia baloratzea.

EI5.3 Komunitateko esku-hartzeen ebaluazio-prozesuan esku hartzen duten jarrera eta trebetasunak identifikatzea.

EI5.4 Ebaluazio-prozesuan eta emaitzetan parte hartzen duten eragileei informazioa emateko prozesua diseinatzea.

EI5.5 Komunitate-proiektuen ebaluazioaren simulazio batean:

- Komunitateko eragileen parte-hartzearekin aurrera eramaten diren informazioa biltzeko prozesuak definitzea.
- Ondorioak eta gomendioak batera idazteko prozedurak sortzea.
- Ebaluaziotik ondorioztatzen den informazioa trukatzeko eta hedatzeko protokoloa egitea.

Edukiak:

1. Informazioaren kudeaketa komunitate-dinamizazioan

- Informazio-iturriak identifikatzea:
  - Informazio-iturrien ezaugarri nagusiak identifikatzea.
  - Iturri ofizialak identifikatzea: estatuko, autonomia-erkidegoetako, probintzietako eta udalerrietako aldizkariak.
  - Ikerketa eta txosten sozialak egiteko teknikak.
  - Iturri ez-ofizialak identifikatzea: prentsa, ikus-entzunezkoak, Internet, harreman pertsonalak, elkarteak eta beste.

2. Esku-hartze soziokomunitarioan aplikatzen diren ikerketa soziologikoko metodoak

- Komunitate-dinamizazioko informazioa biltzeko, aztertzeko eta antolatzeko teknika eta tresnen erabilera.
- Jarduera-irizpideak eta -estrategiak identifikatzea.
- Komunitateko egiturak aztertzeko prozesua.
- Proiektuen plangintza parte-hartzearen bidez egiteko tresna metodologikoak identifikatzea.

3. Gizarte-programazioko prozesuak

- Programazio-ereduak identifikatzea.
- Plangintza arauemailetik plangintza estrategikora aldatzeko prozesua.
- Programazio-prozesuak:
  - Helburuen araberako programazioa.
  - Beharren araberako programazioa.
  - Emaitzen araberako programazioa.
- Proiektuaren faseak identifikatzea.
  - Parte-hartzaileak identifikatzea.
  - Hartzaileak.

- Justifikazioa.
- Helburuak
- Metodologia
- Jarduerak
- Denbora
- Baliabideak
- Ebaluazioa

4. Esku-hartze soziokomunitarioko ebaluazio-prozesuak
   - Ebaluazio-ereduak identifikatzea.
   - Ebaluazio-teknikak eta -tresnak identifikatzea:
     - Behaketa.
     - Dokumentu-bilketa.
     - Banakako eta taldeko teknikak.
   - Ebaluazio-tresnak eta -elementuak definitzea eta aukeratzea.
   - Ebaluazio-jarduerak diseinatzea.
   - Ebaluazioan erabakiak hartzeko prozesua.
   - Ebaluazio-prozesu partizipatiboa: taldeko diagnostiko-teknikak, eta faseak.
   - Kanpo-ebaluatzaileekiko koordinazioa.

5. Prozesu eta emaitzetara bideratutako plangintza partizipatiboa
   - Teknika eta baliabide partizipatiboak programazio-faseen arabera identifikatzea.
     - Errealitatearen azterketa eta identifikazio objektiboa.
     - Diagnostiko partizipatiboa.
     - Indar-helburu eta -ideiak aukeratzea.
     - Proiektuaren plangintza.
     - Garapena eta ezarpena.
     - Jarraipena eta ebaluazioa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Komunitate-dinamizazioa.